

2024ko maiatzaren 7an argitaratu ziren CCOOk eta ASCOVI-BIEBA, AVE-BIE eta AMPV patronalek adostutako taulak, Bizkaiko Eraikuntzako BGAEei egindako ekarpenei buruzkoak.

Taula horietan jasotzen dira enpresak langile bakoitzak ETORKIZUNA BGAEri egin behar dizkion ekarpenak, bakoitzaren kategoriaren arabera.

ETORKIZUNA ENPLEGUKO BGAERA EGINDAKO ENPRESA-EKARPENEN ZENBATEKOA

	2023		2024	
GOI-MAILAKO LANGILEAK				
Obra-burua	688,22	57,35	439,64	36,64
LANGILE TITULUDUNAK				
Aparejadorea	636,84	53,07	406,83	33,9
ENPLEGADUA				
Arduradun nagusia	613,06	51,09	391,65	32,64
LANGILEAK				
Obra arduraduna	587,1	48,93	375,08	31,26
Taldeburua	538,88	44,91	344,29	28,69
Lehen mailako ofiziala	535	44,58	341,81	28,48
Bigarren mailako ofiziala	484,26	40,36	309,42	25,78
Laguntzailea	454,14	37,85	290,19	24,18
Peoi espezialistak	448,56	37,38	286,63	23,89
Peoi arruntak	442,1	36,84	282,5	23,54

ELA sindikatutik BGAE hau sortzearen aurka gaude, bai eta Bizkaiko eraikuntza-sektoreko enpresek egin behar dituzten ekarpenen aurka ere, hainbat arrazoiengatik:

- 1)** Ez dugu onartzen Estatuko hitzarmenen ingerentziarik. Eraikuntzaren Estatuko Hitzarmenak 56. artikuluan jasotzen ditu sektoreko enpresek pentsio-planari egin behar dizkieten ekarpenak.
- 2)** Ekarpenak diskrimitorioak dira; izan ere, ekarpen horiek ez zaizkie egin behar Bizkaiko sektoreko hitzarmeneko tauletan ezarritakoa baino ordainsari handiagoa jasotzen duten langileei.
- 3)** Ekarpen horiek soldata-igoera txikiagoen kontura egiten dira; izan ere, Patronalak onartu zuen bezala, ekarpen horiek egin beharrak kostuak handitzea dakar, eta, ondorioz, soldata-igoerak txikiagoak izan behar dira. Hau da, ekarpen batzuk inposatzen zaizkigu, soldata igoera baxuen kontura.
- 4)** Ekarpenen funtsen kudeaketa azpikontratatu egingo da; hau da, funts horien kudeaketa ez da zuzenean egingo BGAEtik, baizik eta finantza-erakunde bat azpikontratatu da (Estatuan, adibidez, VIDALCAIXAK kudeatzen du). Horrelako erakunde pribatuei negozioa emango zaie, sektoreko langileen parte-hartzerik gabe eta inolako gardentasunik gabe.
- 5)** Horrelako gai bat negoziazio kolektiboari zuzenean eragiten diona kudeatzeko modua erabat opakua izan da.

Horregatik guztiagatik, ELA sindikatua ETORKIZUNA BGAE sortzearen eta Bizkaiko eraikuntza-sektoreko enpresek ekarpenak egitearen aurka dago.

ELAk berretsi egin du pentsioen sistema publikoa indartzeko apustua, horrek dakarren guztiarekin (azken hamarkadetako murrizketetan atzera egitea, hala nola erretiratzeko adina atzeratzea eta beste gai garrantzitsu batzuk).

El pasado 7 de mayo de 2024 se publicaron las tablas acordadas por CCOO y las Patronales ASCOVI-BIEBA, AVE-BIE y AMPV de las aportaciones a las EPSV de la Construcción de Bizkaia.

Dichas tablas recogen las aportaciones que la empresa debe realizar a la EPSV ETORKIZUNA por cada persona trabajadora, en función de la categoría de cada una de ellas.

CUANTÍA DE LAS CONTRIBUCIONES DE EMPRESA A LA EPSV DE EMPLEO ETORKIZUNA

	2023		2024	
PERSONAL SUPERIOR				
Jefe de Obra	688,22	57,35	439,64	36,64
PERSONAL TITULADO				
Aparejador	636,84	53,07	406,83	33,9
EMPLEADOS				
Encargado general	613,06	51,09	391,65	32,64
OPERARIOS				
Encargado de Obra	587,1	48,93	375,08	31,26
Jefe de Equipo	538,88	44,91	344,29	28,69
Oficial de 1.^a	535	44,58	341,81	28,48
Oficial de 2.^a	484,26	40,36	309,42	25,78
Ayudante	454,14	37,85	290,19	24,18
Peones Especialistas	448,56	37,38	286,63	23,89
Peones Ordinarios	442,1	36,84	282,5	23,54

1) No aceptamos ingerencias de convenios Estatales. El Convenio Estatal de la Construcción recoge, en su artículo 56, las aportaciones que las empresas del sector deben hacer al Plan de Pensiones.

2) Las aportaciones son discriminatorias, ya que no hay obligación de hacer estas aportaciones al personal que recibe una retribución superior a lo que marcan las Tablas del convenio sectorial de Bizkaia.

3) Estas aportaciones son a costa de unos incrementos salariales inferiores, ya que, como reconoció la Patronal, la obligatoriedad de hacer estas aportaciones les supone un incremento en costes, y eso hace que los incrementos salariales deban ser inferiores. Estos es, se nos imponen unas aportaciones a costa de unos incrementos salariales bajos.

4) La gestión de los fondos de las aportaciones será subcontratada; es decir, la gestión de estos fondos no se hará directamente desde la EPSV ETORKIZUNA, sino que se subcontratará a una entidad financiera (en el Estado, por ejemplo, lo gestiona VIDALCAIXA). Se dará negocio a este tipo de entidades privadas, sin ninguna participación de las personas trabajadoras del sector y sin ninguna transparencia.

5) La forma en la que se ha gestionado un tema como este que afecta directamente a la negociación colectiva ha sido totalmente opaca.

Por todo esto, el Sindicato ELA se muestra contrario a la creación de la EPSV ETORKIZUNA así como a la realización de aportaciones por parte de las empresas del sector de la Construcción de Bizkaia.

ELA reafirma su apuesta por reforzar el sistema público de pensiones, con todo lo que ello conlleva (dar marcha atrás en los recortes de las últimas décadas, como el retraso de la edad de jubilación y otras cuestiones importantes).